

LASARTE-ORIAKO UDALAREN ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEKO OSTALARITZAKO ZERBITZUAK, ZAINKETA PERTSONALEN ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUAREN ZERBITZUAK, OSASUN-ZERBITZUAK, ZERBITZU PSIKOSOZIALAK, ERABILTZAILEEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO/ATAKOTZAKO ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOEN MANTENTZIO INTEGRALERAKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAN, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA ETA ADJUDIKAZIOKO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Preskripzio Teknikoen Agiri honen xedea Lasarte-Oriako **ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEKO OSTALARITZAKO ZERBITZUAK, ZAINKETA PERTSONALEN ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUAREN ZERBITZUAK, OSASUN-ZERBITZUAK, ZERBITZU PSIKOSOZIALAK, ERABILTZAILEEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO/ATAKOTZAKO ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOEN MANTENTZIO INTEGRALERAKO ZERBITZUAK** emateko baldintzak deskribatzea da.

2.- ZENTROAREN HELBURU OROKORRA

Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxearen helburu orokorra hainbat mota eta gradutako dependentzia duten adineko pertsonen zuzenduriko baliakizunak eskaintzea da.

Hainbat zerbitzuren bitartez, dependentzia duten pertsonen desgaitasun fisikoak, psikikoak eta/edo sozialak konpentsatzeko moduko laguntza eskaintzen da, era indibidualizatuan.

Era berean, bere atentzio-ereduan, Zahar-etxeak pertsonak banaka, taldean eta erkidegoan sustatzeko proiektu bat bultzatu behar du, betiere erabiltzaileen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Zerbitzuen helburu orokorra erabiltzaileei atentzio integrala ematea da, bakoitzaren premiei erantzunez. Atentzio hori parte-hartzean, hautatzeko ahalmenean eta ingurunearen kontrolean oinarritua egongo da, eta eguneroko bizitzako jarduerak erabiliko dira haien gaitasun kognitiboak, funtzionalak eta psikosozialak garatzeko motor bida, instituzionalizazioak ekar ditzakeen ondorioak saiheste aldera.

Jarduketak hauetara zuzenduak egongo dira:

a) Erabiltzaileak

- Autonomia pertsonalerako eta erlazionatzeko gaitasunerako dituzten potentzialitateak garatu eta mantendu egongo dira, esku hartzeko eta inguruneak sortzeko programen bitartez, horiek erabakiak hartzen parte hartzeko eta garatzeko aukerak emango baitizkie.

- Sostengua emango da pertsona artatuak zainketaren, atentzioaren, segurtasunaren eta abarren aldetik dituen premia guztietan.
- Pertsona artatuek izan dezaketen andeatze fisiko eta psikikoa prebenituko da.

b) Familiak

- Familiak atenditzeko programak garatuko dira, haien parte-hartzea ahalbidetuz eta pertsona artatuarekiko erlazioa sustatuz.

c) Erkidegoa

- Zentroa, hango profesionalak eta zerbitzuak, erreferentzia-ardatz bat izango dira erkidegoko ingurunearentzat, dependentziaren atentzioari dagokionez. Horretarako, erkidegoari irekitako jarduerak sustatu beharko ditu.

Zentroak, gainera, erabiltzen duten pertsonen sustapen eta garapen pertsonal eta sozialerako espazio bat izan behar du, haren ingurune sozialaren eta beraren artean interrelazioko prozesuak sortuko dituena, eta horrelako atentzioak behar dituzten pertsoneri buruz gizarteak duen pertzepzioan eragin positiboa izango duena.

3.- ZERBITZUEN HELBURU OROKORRA.

Helburu horiek lortzeko, zentroak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, erabiltzaile bakoitzak ageri dituen premiei unean-unean egokituriko atentzio jarraitua eskaintzeko.

3.1.- Adineko pertsona dependentziadunentzako egoitza-zerbitzua.

Egoitza-zerbitzua emango zaie adineko pertsona dependentziadunei, ostatatze alternatiboa eta atentzio integrala eskainiz. Egoitza-zerbitzuak pertsona artatuen eguneroko bizitzako jardueretarako eta garapen pertsonalerako behar diren sostenguzko zerbitzu guztiak emango ditu. Dependentziaren dibertsotasuna kontuan izanik, zentroak dependentzia-gradu ezberdinetako pertsonak dauzka, eta Psikogeriatriako Unitate bat edukiko du, desgaitasun psikiko larria ageri duten pertsoneri ingurune espezifiko batean atentzio espezializatua emateko helburuarekin. Psikogeriatriako Unitate horren obrak aurki hasiko direla aurreikusten da.

3.2.- Adineko pertsona dependentziadunentzako Egunezko Egonaldien Zerbitzua.

Mantenuko eta atentzio asistentzia, sanitario eta psikosozialeko zerbitzua emango zaizkie hainbat gradutako dependentzia duten adineko pertsoneri, autonomoak izan daitezen eta beren ohiko ingurunean egon daitezen bultzatuz. Horietatik kanpo geratzen dira zerbitzu medikoak.

Egunezko Egonaldien Zerbitzuak egunez emango ditu (9:00etatik 18:00etara bitartean) pertsona artatuen eguneroko bizitzako jardueretarako eta garapen pertsonalerako behar diren sostenguzko zerbitzu guztiak. Duen kokaleku eta diseinuagatik, Egunezko Zentroa Zahar-Etxearen antolamenduzko egituran integratua dago, eta konta dezake, puntualki, Zahar-Etxeko zerbitzuekin, programekin eta pertsonalarekin, nahiz eta beti edukiko dituen espazio bereziak, pertsonal espezifikoak eta programa bereziak.

4.- PLAZEN KOPURUA.

Egoitzako Zerbitzua: 51 plaza, guztiak Gipuzkoako Diputazio Foralarekin itunduak. Aurki hasiko diren Psikogeriatriako Unitatea sortzeko obrak amaitutakoan, egoitzako 36 plaza eta psikogeriatriako 15 plaza edukiko ditu.

Egunezko Egonaldien Zerbitzua: 15 plaza, guztiak Gipuzkoako Diputazio Foralarekin itunduak.

5.- ERABILTZAILEEN TIPOLOGIA

Oro har, Zahar-Etxea eta Eguneko Zentroa adineko pertsona dependentziadunak eta/edo dependentzia handikoak artatzera destinatuak daude, Gipuzkoako Diputazio Foralaren Politika Sozialerako Departamentuan indarrean dagoen kalifikazio-eskalaren arabera.

Psikogeriatriako Unitatearen kasuan, erabiltzaileak bat etorriko dira Psikogeriatriako Unitateen baldintzak zehazten dituen 394/2006 Agindu Foral ekainaren 2koan Politika Sozialerako Departamentuak ezarritako irizpideekin.

6.- ZERBITZUAREN KONDIZIOEN DESKRIPZIOA.

6.1- JARDUN-EREMUA

Zerbitzuak Preskripzio Teknikoen Agiri honen III. Eranskinean enumeratzen diren egoitza eta instalazioetan emango dira.

6.2- ZERBITZUAREN KONDIZIOAK:

Emango diren zerbitzuak ondoko hauek izango dira:

6.2.1.- LASARTE-ORIAKO ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEKO ERABILTZAILE DIREN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZERBITZUAK, ENPRESA ADJUDIKATARIOAK NAHITAEZ EMAN BEHARREKOAK:

6.2.1.1.- OSTALARITZAKO ZERBITZUAK

— Ostatatzea: Gelak, bainugelak, denentzako espazioak.

— Mantenua: Gosaria, bazkaria, askaria, afaria.

Otorduak (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria, egoitza-zerbitzuaren erabiltzaileen kasuan, eta gosaria, bazkaria eta askaria, egunezko egonaldietako zerbitzuaren erabiltzeen kasuan) zentroko bertako instalazioetan prestatuko dira egunero, eta bertan egingo dira haien partiketa eta haien ondoriozko eta haiekin loturiko gainerako eginkizunak.

Egoitza-zerbitzuaren nahiz egunezko egonaldietako zerbitzuaren erabiltzaileentzat, egunero bi menu ezberdin prestatzea, bazkarietarako bezala afarietarako ere, horrela egoiliarrek gutxienez bi menuren artean hautatzeko aukera izan dezaten.

Egoiliarren ezaugarrien arabera eta zentroko zerbitzu sanitarioak emandako informazioaren arabera, dieta bereziak prestatzea, hala nola dieta hiposodikoak, urdaila babesteko dietak, erraz mastekatzeko dietak, dieta hipokalorikoak, etab.

Menuetan, astegunetakoetan nahiz jaiegunetakoetan, ez da jaki aurreprestaturik edo kanpoan prestatutako elikagairik sartuko, eta nahitaez sartu beharko da garaiko fruta eta, gutxienez astean bitan, arrain freskoa.

Igandeetan eta jaiegunetan, astegunetakoez bestelako menuak prestatuko dira. Era berean, menu bereziak prestatuko dira jarraian zehazten diren egunotan:

Urtarrilaren 1ean (Urteberri eguna). (Bazkaria).
Urtarrilaren 6an (Errege-eguna). (Gosaria eta bazkaria). (Menuaren barruan, Erregeenetako Erroskoa sartuko da)
Ekainaren 29an (San Pedro eguna). (Bazkaria).
Uztailaren 26an (San Joaquín eta Santa Ana, Aiton-amonen eguna). (Bazkaria).
Uztailaren 31n (San Ignazio eguna). (Bazkaria).
Abuztuaren 15ean (Ama Birjinaren Jasokundearen eguna). (Bazkaria).
Abenduaren 6an (Espainiako Konstituzioaren Eguna). (Bazkaria).
Abenduaren 8an (Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna). (Bazkaria).
Abenduaren 21ean. (San Tomas eguna). (Hamaiketako txistorrarekin).
Abenduaren 24an (Gabon eguna). (Afaria).
Abenduaren 25ean (Eguberri eguna). (Bazkaria).
Abenduaren 31n (Urtezahar eguna). (Afaria).

Eta hileroko laugarren ostiraletan. (Urtebetetzeen bazkaria). Ostiral horietakoren bat gorago zerrendatutako jaiegunekin egokitzen bada, jai-bazkaria hurrengo ostiralera atzeratuko da, etab.

— Arropa garbitzea: Arropa lisatzea, konpontzea eta banatzea barne.

— Espazio orokorrak eta logelak garbitzea.

Baldintza-agiri hauen III. eranskineko dokumentazio grafikoan seinalaturiko edifikioa eta hango gela eta instalazio guztiak garbituko ditu.

- 1) Egunero egitea zentroko logela, lokal, egoitza eta instalazioen garbiketako berezko lanak (arropa-aldaketak, bainugelak, leiho eta balkoiak, jantokiko mahai-zapiak, altzariak, etab.), egoiliarrei ahalik eta enbarazu gutxien egiten saiatuz.
- 2) Astean behin bederen, metalak, urretadurak, etab. garbitzea.
- 3) Hamabostean behin bederen, beirak barrualdetik eta kanpoaldetik garbitzea eta zoruei distira ematea.
- 4) Hilean behin bederen, altzariak, ekipamenduak, paretak, atearak, azulejoak, etab. sakonetik garbitzea.
- 5) Gortinak, gortinoiak, burusiak eta edredoiak hotzean garbitzea, egoiliarren ezaugarrietan oinarrituz. Aurrekoa alde batera utzi gabe, lan hori urtean bitan behintzat egin beharko da.

— Erabiltzaileak berak zuzenean erabiltzen dituen elementu materialen mantentzia eta

konponketa (elementu tekniko konplexuenak kanpo utzita).

— Norberaren jabetzako gauzak zaintzea (bitxiak, etab.).

6.2.1.2.- ZAINKETA PERTSONALEKO ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUKO ZERBITZUAK.

Balorazio integrala - diagnostikoa (Artatzeko Banakako Plana).

A) Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza (egunean 24 orduz).

— Norberaren higienarako, garbitzeko eta janzteko laguntza.

— Erabiltzailearen estetika zaintzeko laguntza.

— Erabiltzailearen gela eta gauzak txukun edukitzeko laguntza.

— Jaikitze eta oheratzeko laguntza.

— Transferentzia eta leku-aldaketetarako laguntza.

— Mugiezintasuna tratatzeko laguntza.

— Elikatzeko laguntza.

— Inkontinentzia tratatzeko laguntza.

— Botikak emateko laguntza.

B) Portaeraren nahasmenduak maneiatzeko laguntzak:

— Portaerako gehiegikeria eta/edo inhibizioen tratamendua, kontentziorako sostengua.

C) Eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako laguntzak.

— Baliakizunak tramitatzea.

— Laguntza teknikoak kudeatzea.

— Ospitaletara eta/edo kontsultetara joaten laguntzea (familiarik ez badago).

— Gastu xeheetarako behar duen eskuartea administratzea (ile-apaindegirako, aisiako gastuetarako, arroparako).

— Gestio pertsonalak.

6.2.1.3.- OSASUN-ZERBITZUAK.

A) Zerbitzu medikoak:

— Balorazio integrala - diagnostikoa (Artatzeko Banakako Plana).

— Prebentzioko osasun-laguntza: Lehen, bigarren eta hirugarren mailakoa.

— Osasun-laguntza orokorra: Tratamenduak / botikak / jarraipena.

— Sindrome geriatriko handietako laguntza.

— Osasun-laguntza espezifikoa eta urgentziazkoa.

— Errehabilitazio xehea.

— Elikadurari buruzko balorazioa, arreta eta beharrak.

— Aholkularitza medikoa erabiltzaileei eta familiei.

— Osasun-zentroetara eramatea: Programatuta nahiz larrialdian.

— Ospitalean dauden erabiltzaileen jarraipena egitea.

B) Erizaintzako zerbitzuak:

— Balorazio integrala - diagnostikoa (Artatzeko Banakako Plana).

— Artatzeko banakako plana martxan jartzea eta jarraipena egitea.

- Erizaintzako atentzio prebentziozkoa.
- Erizaintzako atentzioa: Tratamenduak, sendaketak, laginak hartzea, konstanteak neurtzea, gaitz kronikoen eta akutuen jarraipena egitea.
- Egoiliarren medikazioa kontrolatzea eta kudeatzea.
- Material sanitarioa kudeatzea.
- Erizaintzako aholkularitza ematea erabiltzaileei eta familiei.
- Ospitalean dauden erabiltzaileen jarraipena egitea.

6.2.1.4.- ZERBITZU PSIKOSOZIALAK.

A) Arlo soziala:

- Balorazio integrala - diagnostikoa (Artatzeko Banakako Plana).
- Baliabide sozialei buruzko informazioa; egoitzara sartzeko eta egokitze prozesuetan eta bizikidetzako arazoetan sostengua.
- Familiaren eremuan esku hartzeko programak: Familiarentzako arreta, prestakuntza, ABPan (Artatzeko Banakako Planean) parte hartzea.
- Esku-hartze sozial eta komunitarioko programak: Sostengu soziala, gizarteratzea eta gizartean parte-hartzea, boluntario-lana.

B) Arlo psikologikoa:

- Balorazio integrala - diagnostikoa (Artatzeko Banakako Plana).
- Funtzio kognitiboetan esku hartzeko programak: Psikoestimulazioa, oroimena lantzea, errealitatean orientatzea.
- Funtzio psikoafektiboetan esku hartzeko programak gogo-aldarterako, depresiorako edo antsietateko nahasmenduetarako.
- Arlo guztietan sostengu pertsonala ematea, banaka nahiz taldean.
- Portaeraren arloan esku hartzeko programak.

C) Jarduera sozialen arloa:

- Heziketan eta kulturalki esku hartzeko programak: Animazio soziokulturala.

6.2.1.5.- ERABILTZAILEARI ETA FAMILIARI INFORMAZIOA, ATENTZIOA ETA PARTE HARTZEKO BIDEA EMATEKO ZERBITZUAK.

A) Informazio-zerbitzua:

- Barne-Erregimeneko Erregelamendua.
- Argibide-liburuxka.

B) Zerbitzu administratiboak:

- Kontratua.

C) Erabiltzailea eta haren familia atenditzeko zerbitzua:

- Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko prozedura.

D) Erabiltzailearen eta haren familiaren parte-hartzea:

- Parte hartzeko bideak.

6.2.1.6.- BESTE EGOITZA-ZERBITZU BATZUK.

Jarraian deskribatzen diren zerbitzuak ere enpresa adjudikatarioak nahitaez eman beharrekoak izango dira, baina erabiltzaileek zuzenean finantzatuko dituzte, erabiltzaileak egoitza-zerbitzuagatik ordaintzen duen tarifa itundua alde batera utzirik, eta Lasarte-Oriako

Udalak ezartzen duen tarifa-erregimena aplikatuko da.

- Telefono-zerbitzua eta Internet.
- Edari beroak ateratzeko makina.
- Ile-apaindegia.
- Podologia.
- Elizkizunak.

Adjudikatariorak Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ematen dituen egoitza-zerbitzuen antolamendu-kulturan eta eguneroko funtzionamenduan txertatu beharko ditu adineko pertsona dependentziadunen egoitzazko atentziorako giltzarritzat jotzen diren prozesu eta jarduketa-eremuetarako ezarritako espezifikazioak eta praktika onak, zeinak enumeratzen baitira **baldintza-agiri hauen I. ERANSKINEAN (EGOITZAZKO ATENTZIOAN GILTZARRI DIREN PROZESUETAKO ESPEZIFIKAZIOAK ETA PRAKTIKA ONAK).**

6.2.2.- ZENTROKO INSTALAZIOEN MANTENTZIO INTEGRALEKO ZERBITZUAK.

Enpresa adjudikatariora obligatua dago, Preskripzio Teknikoen Agiri honen III. eta IV. Eranskinetan enumeraturiko Atsobakar Zahar-Etxeko gelen, ondasunen, ekipamenduen eta instalazioen multzoaren gainean, honako prestazio hauek betetzera:

- Instalazioak gidatzea eta zaintzea.
- Egunean 24 orduko zerbitzua.
- Prebentziozko mantentzio sistematikoa.
- Prebentziozko mantentzio zuzentzailea.
- Legionellaren kontra prebenitzeko eta borrokatzeko mantentzio espezifikoa.
- Mantentziorako behar diren kontsumigaienez hornitzea.
- Arauzko kontroletarako asistentzia teknikoa kontrolatzea.
- Mantentzioko dokumentuak eguneratzea.
- Lokalak eta ekipamendu teknikoak garbitzea.
- Mantentzio orokorra.

Honako baldintza-agiri honen II. Eranskinean zehazten da enpresa adjudikatariorak bete beharreko mantentzioko zerbitzuak nola eman, bai halaber bermatu beharreko baldintza teknikoak eta Preskripzio Teknikoen Agiri honen xede diren zerbitzuen kontratuan sarturiko zentroko instalazioen lista xehatua, Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxeko instalazioen mantentzio integralerako zerbitzuei dagokienez.

7.- ZERBITZUAREN EGUN-KOPURUA ORDUTEGIA

Zerbitzuen egun efektiboaren kopurua eta ordutegiak ondoko hauek izango dira:

a) **Egoitza-zerbitzua:** 365 egun, 24 orduko atentzioa.

b) **Egunezko Egonaldien Zerbitzua:** 365 egun, egunean 9 orduko atentzioa (9:00etatik 18:00etara).

Egunezko Egonaldien Zerbitzuko ordutegiak, lehenago deskribatuak, aldatu ahalko ditu Lasarte-Oriako Udalak, antolamenduko irizpideen arabera edo erabiltzaileen premiei erantzuteko irizpideen arabera.

8- ADJUDIKATARIOAK ZERBITZUARI BURUZ DITUEN BETEBEHARRAK:

Adjudikatariorak ondoko konpromiso hauek hartuko ditu:

a) **Erantzun-denboraren gaineko konpromisoa:** Zerbitzua ematean gertatzen den edozein intzidentziak gehienez ere 24 orduko erantzun-denbora izan beharko du. Betiere alde batera utzi gabe zentroan bertan eta hitzarturiko orduetan eguneroko otorduak emateko betebeharr ezinbestekoa.

Adjudikazioko unean, adjudikatariorak Gipuzkoako probintzian pertsonal nahikoa izan beharko du, eta kontratuko denboran mantendu beharko du, zerbitzu egokia emateko eta, errekerituz gero, atentzioa bermatzeko.

b) **Araudien gaineko konpromisoa:** Honako lizitazio honen xedeko lanetatik deribaturiko zerbitzu guztiak ematean, nahitaez bete beharko dira legezko arau guztiak, hala izaera teknikoa edo tekniko-legala dutenak eta segurtasunaren eta higienearen arlokoak, nola edifizioen ezaugarriengatik aplikatzekoak izan daitezkeen guztiak.

9.- BALIAKIZUN PERTSONALAK

9.1.- Enpresa adjudikatariorak beharrezko pertsona-ekipoa edukiko du, dokumentu honetan deskribaturiko zerbitzuak urte osoan eman ahal izateko.

Profesionalizazioaren printzipioarekin bat etorriz, dokumentu honetan deskribatutako zerbitzuak emateko behar den pertsonal guztiak beharrezko titulazio akademiko ofiziala izango du, edo, horren ezean, titulazioa obligaziozkoa ez den kasuetan, akreditatu egin beharko du maila profesionala eta behar den esperientzia.

9.2.- Zerbitzua segurtasuneko, efikaziako eta sanitateko kondizio egokietan emateko behar den pertsonalaz hornitua egongo da, erabiltzaileak inolako deserosotasunik eta berantzerik nozi ez dezan.

Zerbitzua urte osoan bermatu beharko da, eta aurreikusi egin behar dira jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak, zein ordezkoeekin bete beharko baitira.

9.3.- Kontratuaren xedeko zerbitzuak emango dituen pertsonalak Segurantzaren Sozialaren Erregimen Orokorrean sarturik egon beharko du.

Enpresa adjudikatariorak, Lasarte-Oriako Udalak hala eskatutakoan, kontratuaren xedeko zerbitzuak ematen dituen pertsonalaren TC inprimakien kopiak entregatuko dizkio, bai halaber pertsonal guztiaren titulazioa akreditatzen duen dokumentazioa.

9.4.- Adjudikatarioak eduki beharko duen ekipoak, gutxienez, pertsonal hau izango du:

9.4.1.- Pertsonal terapeutikoa:

9.4.1.1.- Gerokultorea / Klinikako laguntzailea.

Goizeko txandan:

- Gerokultore / Klinikako laguntzaile (7) lanpostu, lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Gerokultore edo Klinikako laguntzaile zazpi lanpostu totaletatik, hiru psikogeriatriako unitatera destinatuko dira.

- Gerokultore / klinikako laguntzaile bi (2) lanpostuko errefortzua, lanaldi partzalean (egunean 3,5 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 8:00etatik 11:30era bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

- Gerokultore / Klinikako laguntzaile zazpi (7) lanpostu, lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Gerokultore edo klinikako laguntzaile zazpi lanpostu totaletatik, hiru psikogeriatriako unitatera destinatuko dira.

- Gerokultore / Klinikako laguntzaile bi (2) lanpostuko errefortzua, lanaldi partzalean (egunean 3,5 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 18:30etik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Gaueko txandan:

- Gerokultore / Klinikako laguntzaile bi (2) lanpostu, lanaldi osoan (egunean 10 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 22:00etatik 8:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Egunezko Egonaldien Zerbitzua:

- Gerokultore / Klinikako laguntzaile hiru (3) lanpostu, lanaldi osoan (egunean 7 orduz),

astelehenetik igandera, jaiegunak barne, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Egunezko egonaldien zerbitzuko Gerokultore / Klinikako laguntzaile hiru (3) lanpostuetatik, bata presentzia eta jarduera jarraituak izango ditu, egunero 9:30etik 16:30era bitartean lanaldian, eta beste bi lanpostuek ordutegi partituan: bata 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era, eta besteak 10:00etatik 15:30era eta 16:30etik 18:00etara.

9.4.1.2. Gainbegiratzailea

- Gainbegiratzaile lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izango ditu, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitarteko ordutegi partituan, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.3. Gizarte Langilea.

Gizarte langile lanpostu bat (1), lanaldi partzian (egunean 5 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 9:00etatik 14:00etara bitarteko lanaldian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.4. EDU.

Goizeko txandan:

EDU lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

EDU lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.5. Fisioterapeuta.

Fisioterapeutaren lanpostu bat (1), lanaldi partituan (egunean 7 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, 9:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30etara bitarteko ordutegian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.6. Monitore okupazionala.

Monitore Okupazionalaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera partituak izango ditu, egunero 9:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.7.- Psikologoa.

Psikologoaren lanpostu bat (1), lanaldi partzalean (egunean 5 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 9:00etatik 14:00etara bitarteko lanaldian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.1.8.- Medikua.

Medikuaren lanpostu bat (1), lanaldi partzalean (egunean 5 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 9:00etatik 14:00etara bitarteko lanaldian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.2.- Gestioko pertsonala:

9.4.2.1.- Zuzendaria.

Zuzendariaren lanpostu bat (1), lanaldi partituan (egunean 7 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitarteko ordutegian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.2.2.- Administrazioako laguntzailea:

Administrazioako Laguntzailearen lanpostu bat (1), lanaldi partzalean (egunean 5 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 9:00etatik 14:00etara bitarteko lanaldian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.3.- Pertsonal ez-terapeutikoa.

9.4.3.1.- Atezaina:

Goizeko txandan:

- Atezainaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta

daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

- Atezainaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.3.2.- Mantentzioko ofiziala:

- Mantentzioko ofizialaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 7:30etik 14:30era bitarteko lanaldian, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Instalazioan izango duen presentziak egunean 7 orduko lanaldia beteko du, baldintza-agiri hauetako II. Eranskinean adierazitako egunean 24 orduko zerbitzua gorabehera.

9.4.4. - Bestelako pertsonala:

9.4.4.1.- Garbitzaileak:

Goizeko txandan:

- Garbitzaileen hiru (3) lanpostu, lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

- Garbitzailearen lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

- Garbitzailearen lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera partituak izango ditu, 8:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.4.2.- Ikuzle jostuna:

Ikuzle jostunaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.4.3.- Sukaldeburua:

Goizeko txandan:

- Sukaldeburuaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izango ditu, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.4.4.- Sukaldaria:

Arratsaldeko txandan:

- Sukaldariaren lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.4.5.- Sukaldeko laguntzailea:

Goizeko txandan:

- Sukaldeko laguntzailearen lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 8:00etatik 15:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

- Sukaldeko laguntzailearen lanpostu bat (1), lanaldi osoan (egunean 7 orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko ditu, egunero 15:00etatik 22:00etara bitarteko lanaldian, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

9.4.4.6.- Zerbitzaria:

Goizeko txandan:

- Zerbitzarien bi (2) lanpostu, bazkarietako errefortzurako, lanaldi partzian (egunean 2na

orduz), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Arratsaldeko txandan:

- Zerbitzarien bi (2) lanpostu, afarietako errefortzurako, lanaldi partzialean (egunean ordu bana eginez), astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Presentzia eta jarduera jarraituak izan beharko dituzte, eta jaiegun, gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarreatatik gerta daitezkeen hutsuneak nola bete aurreikusi beharko da, dagozkien ordezkapenak izan beharko baitituzte.

Kontratu honen xede diren eta lehenago deskribatu diren zerbitzuak emateko beharrezkoa den pertsonalaren lan-ordutegiak aldatu ahalko ditu Lasarte-Oriako Udalak, antolamenduko edo erabiltzaileen premiei erantzuteko irizpideen arabera.

9.5.- Ezinbesteko baldintza izango da Zuzendariak honako baldintza hauek betetzea:

9.5.1.- Diplomatura edo lizentziatura baten jabe izatea.

9.5.2.- Gutxienez hamabi hilabeteko esperientzia egiaztatzea egoitza-zerbitzu publiko edo pribatuetako zuzendari gisa eta/edo zerbitzu sozialekin zerikusia duten enpresa edo instituzioetako gerentziako lanpostuetan, azken bost urteotan.

9.6.- Ezinbesteko baldintza izango da gainbegiratzaileak Gerokultorearen edo Erizaintzako Laguntzailearen titulazio akademikoa edo baliokidea edukitzea.

9.7.- Ezinbesteko baldintza izango da mantentzioko langileak prestakuntza multidisplinarioa izatea eta esperientzia egiaztatua izatea iturgintzan, gasean, elektrizitatean, igeltserotzan, zurgintzan, etab.

10.- KONTRATUAREN XEDEKO ZERBITZUAK EMANGO DITUEN PERTSONALAREN EGINKIZUNAK.

10.1.- ZUZENDARIA:

Zuzendariak bete beharreko eginkizun nagusiak ondoko hauek izango dira:

- 1.- Zerbitzuen erantzule izango da Udalaren aurrean, eta zuzeneko solaskidea harekiko erlazioan, eta hilean hileko txostenak egin beharko ditu emandako zerbitzuei buruz.
- 2.- Kontratuan zehazturiko zerbitzu guztien antolaketa, koordinazio, kontrol, ikuskatze eta jarraipenaren erantzulea izango da, eta emaitzak mantentzioko liburuetan agertuko ditu, edo dagozkien txostenetan, beharrezkoak direnean.
- 3.- Zentroko erabiltzaileei baldintza-agiri honen 6.2 atalean ezarritako egoitza-zerbitzu guztiak emango zaizkiela bermatuko du.
- 4.- Egoitza-zerbitzuaren antolamendu-kulturan eta eguneroko funtzionamenduan txertatuko

ditu adineko pertsona dependentziadunen egoitzazko atentzioan giltzarritzat jotzen diren zenbait prozesu eta jarduketa-eremutarako zehaztapenak eta praktika onak, zeinak baldintza-agiri honen I. Eranskinean jaso baitira.

- 5.- Lasarte-Oriako Udalaren Atsobakar Zahar-Etxearen Barne-Erregimeneko Erregelamendua gauzatzea eta betearaztea.
- 6.- Haren erantzukizuna izango da Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistema gauzatzea eta betearaztea, bai halaber haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- 7.- Haren erantzukizuna izango da Atsobakar Zahar-Etxerako Kalitate-Planaren (ISO 9001:2000) Zertifikazioko Mantentzio-Zerbitzua gauzatzea eta betearaztea, bai halaber haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- 8.- Haren erantzukizuna izango da Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako Kalitate-Planeko dokumentazioa AENOREk edo Normalizazioko eta Zertifikazioko beste edozein enpresa homologatuk beharretsitakoaren arabera egokitzea.
- 9.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Udala administratiboki errepresentatzea Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako Kalitate-Planari buruz AENOREk edo Normalizazioko eta Zertifikazioko beste edozein enpresa homologatuk egindako auditorietan beharrezko diren jarduketa guztietan, eta, hala badagokio, aipaturiko auditoria horietan hautemandako adostasunik ezak zuzentzeko ezarri beharreko ekintza-plana prestatzea.
- 10.- Lasarte-Oriako Udala administratiboki errepresentatzea Zentroko Kalitate-Gestioaren Ziurtagiria mantentzeko beharrezko diren jarduketa guztietan.
- 11.- Lasarte-Oriako Udala administratiboki errepresentatzea Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak zentroan egindako inspekzioetan beharrezko diren jarduketa guztietan.
- 12.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako Legionella Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Sistema gauzatzea eta betearaztea.
- 13.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Sistema gauzatzea eta betearaztea.
- 14.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako Arriskuak Analizatzeko Kontrol-Puntu Kritikoen Sistema (HACCP) gauzatzea eta betearaztea.
- 15.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean garatuko den Prestakuntzarako Plana prestatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- 16.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean garatuko den Boluntariotzako Programa prestatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- 17.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean garatuko den Praktiketako Ikasleen Programa prestatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- 18.- Haren erantzukizuna izango da Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean garatuko den

Jardueren Plana prestatzea eta gauzatzea.

- 19.- Haren erantzukizuna izango da Jardueren Planaren urteko ebaluazio idatzia egitea, emaitza kualitatibo eta kuantitatiboekin, eta han sartuko ditu emaitzak, parte-hartzearen indizeak, erabiltzaileen eta profesionalen iritzia, proposatutako doikuntzak, etab.
- 20.- Haren erantzukizuna izango da hileroko Udalari aurkeztea, hark onesteko, Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean prestatuko diren menuak.
- 21.- Lasarte-Oriako Udalaren Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-plana kudeatzeko eta garatzeko Kalitateko Komitearen deialdiak egitea eta han parte hartzea.
- 22.- Erabiltzaileak gainbegiratzeko eta jarraipena egiteko batzordearen deialdiak egitea eta han parte hartzea, egoiliarren eta eguneko zentroko erabiltzaileen behar asistentzialei eta eguneroko bizitzakoei dagokienez. Hori lankidetzan egingo du medikuarekin, gizarte langilearekin, psikologoarekin eta beste profesionalarekin, erabiltzaileen egoera fisikoaren, lortu beharreko helburuen eta zentroaren ezaugarrien arabera.
- 23.- Lasarte-Oriako Udalak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 24.- Haren erantzukizuna izango da ongi funtzionatzea baldintza-agiri hauetako III. eta IV. Eranskinetan zehazturiko instalazioek, gelek, makinek, altzariak, ekipamenduek, lanabesek eta mantendu beharreko elementu lagungarriak.
- 25.- Honako lizitazio honen xedeko lanetatik deribaturiko zerbitzu guztiak ematean, legezko arau guztiak betetzen direla egiaztatuko du, hala izaera tekniko edo tekniko-legala dutenak eta segurtasunaren eta higienaren arlokoak, nola edifizioen ezaugarriengatik aplikatzekoak izan daitezkeen guztiak.
- 26.- Deskribaturikoez gain, zuzendariaren berezko eginkizunak izango dira Lasarte-Oriako Udalak bere kategoria profesionalaren arabera agintzen dizkionak ere.

10.2.- MEDIKUA.

Medikuak bete beharreko eginkizun nagusiak ondoko hauek izango dira:

- 1.- Egoiliar bakoitzari azterketa medikoa egitea eta dagokion historia medikoa eta ziurtagiri profesionalak betetzea, zeinetan kontatuko baititu bizitza mota egokienerako indikazioak, behar duen errehabilitazioa eta egin beharreko tratamendua, horrelakorik behar izanez gero.
- 2.- Erabiltzaileen premia asistentzialak artatzea. Azterketa medikoak eta diagnostikoak egitea eta kasu bakoitzean tratamendurik egokienak agintzea, terapia prebentiboak, asistentzialak eta errehabilitaziokoak egiteko, zentroko erabiltzaileen diagnostiko kliniko eta funtzionalen arabera.

- 3.- Erabiltzaileen mugikortasun eta errehabilitazioko programak zuzentzea, banaka eta taldean garatu beharreko programak ekipoan finkatuz. Jarraipena egitea eta programak ebaluatzea, parte hartzen duten pertsona guztiek osatutako ekipoarekin batera.
- 4.- Zentrorra destinaturiko pertsonalari urgaztea premiako eta urgentziako kasuetan.
- 5.- Bere departamentu medikoko arduradun nagusi gisa, baldin eta zentroak ezin baditu erabiltzaileak behar bezala artatu, ospitale edo osasun-zentro batera bideratzea.
- 6.- Erabiltzaileak gainbegiratzeko eta jarraipena egiteko batzordean parte hartzea, egoiliarren eta eguneko zentroko erabiltzaileen behar asistentzialei eta eguneroko bizitzakoei dagokienez. Hori lankidetzan egingo du zuzendariarekin, gizarte langilearekin, psikologoarekin eta beste profesionalekin, erabiltzaileen egoera fisikoaren, lortu beharreko helburuen eta zentroaren ezaugarrien arabera.
- 7.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 8.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 9.- Egoiliarren edo erabiltzaileen menuak eta elikadurako dietak programatzea eta gainbegiratzea.
- 10.- Zentroko pertsonal sanitarioaren lana gainbegiratzea.
- 11.- Zentroko egoitzen egoera sanitarioa gainbegiratzea.
- 12.- Oro har, bere titulazioaren eta lanbidearen arabera eskatzen zaizkion zehaztu gabeko jarduera oro.

10.3.- ERIZAINZAKO DIPLOMADUN UNIBERTSITARIOA (EDU):

EDUak bete beharreko eginkizun nagusiak ondoko hauek izango dira:

- 1.- Zentroko lan asistentzial eta sanitarioa planifikatzea eta antolatzea, aurreikusitako ekintzak eta jarduerak bultzatuz eta garatuz.
- 2.- Erabiltzaileen osasun-egoera artatzea eta begiratzea, diagnostikoa eginez, tratamendua jarritz eta behar dituen erizaintzako artak ebaluatuz.
- 3.- Erabiltzaileen medikamentuak erostea, prestatzea eta ematea, medikuaren aginduaren arabera.
- 4.- Bizi-ezaugarriak hartzea, odola ateratzea, laginak hartzea, etab.
- 5.- Medikuarekin kolaboratzeko eguneroko kontsultan.
- 6.- Erizaintzako kontsulta atenditzea, sendaketak egitea, etab.

- 7.- Erizaintzako eguneroko txostena prestatzea, erabiltzaile bakoitzak behar duen tratamendua eta lana planifikatuz.
- 8.- Farmaziako eta analisigintzako eskariak egitea, bai halaber kontsumigai sanitarioen, birjartzeko materialen eta abarren hornidurak.
- 9.- Bere lanaldiko denbora guztian egongo da gertatzen diren urgentziak lehenesteko moduan.
- 10.- Erabiltzaileen historia medikoa eta erizaintzako guztiz eguneratua mantentzea.
- 11.- Medikuekin batera edo elkarlanean, erabiltzaileen osasuna kontrolatzera eta prebenitzera destinatutako programak burutuko ditu.
- 12.- Haren erantzukizuna izango da zerbitzuari atxikitako instalazioek, ekipamendu espezializatuek, material sanitarioak eta abarrek guztiz ongi funtzionatzea.
- 13.- Egunekeko Zentroko eta Egoitzako zerbitzuen arduradunarekin batera edo elkarlanean, zuzendari, koordinatzaile eta gainbegiratzaile lanak egingo ditu zenbait alderditan, hala nola eguneroko bainuak antolatzen, ohatuak artatzen, jantokian kasu egiten eta laguntzen, inkontinenteen higiearen jarraipena eta kontrola egiten, elementu osagarrien egoeran (aulki gurgildunak, garabiak, ohean babesteko elementuak, etab.), eta berez dagozkion gainerako eginkizunetan.
- 14.- Eguneroko mediku-kontsultaren ondoren sortutako gestioak egingo ditu, hala nola zentro sanitario edo espezialistetan kontsultak eskatzea, medikazioa eskatzea, sendaketak antolatzea, etab., eta horren berri emango die familiarrekoei edo laguntzaileei. Hala egiteko eskatzen zaion guztian, erabiltzaileei lagunduko die kanpoko kontsultetara, ospitaleratzeak egitera, etab.
- 15.- Egoiliarren osasun-egoeraren berri emango die familiarrekoei, arduradun medikoaren alde aurreko baimenarekin.
- 16.- Elikadurako dietak eta jan-neurriak egokiro banatzeaz arduratuko da, betetzen dituztela segurtatuz.
- 17.- Txanda-aldaketekin bat etorriz, sartzen den txandaren arduraduna gertaera berri eta gorabehera orokorrean informatuko du, erreleboa ahalik eta kondiziorik onenetan egin dadin.
- 18.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 19.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 20.- Administrazioako eginkizunetan lagunduko du, hala nola kontroleko egoera-orriak, hainbat parte, urteko memoriak, erregistro-liburuak, etab. egiten.
- 21.- Deskribaturikoez gain, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira mailaz goragokoak bere kategoria profesionalaren barruan agintzen dizkionak ere.

10.4.- GIZARTE LANGILEA:

Gizarte langileak bete beharreko eginkizun nagusiak ondoko hauek izango dira:

- 1.- Zentroko lan soziala planifikatzea eta antolatzea, helburuak egoki programatuz eta lana arrazionalizatuz. Zentroko erabiltzaileei eta egoiliarrei buruzko alderdi sozialak ikertzeraz bideraturiko estudioak egitea eta kolaboratzea.
- 2.- Jarduera administratiboak burutzea eta zentroko erabiltzaileen eta egoiliarren txosten sozialak egitea, baita zentroko zuzendaritzak eta/edo Udalak eskatzen dizkionak ere, bertako eta besteen baliabideei buruzko informazioa ematea eta haien egoera pertsonalaren, familiarraren eta sozialaren balorazioa egitea.
- 3.- Bere gain hartzea Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratorzen diren erantzukizunak.
- 4.- Tratamendu sozialak egitea, kasu bakoitzeko zerbitzu sozialaren bidez, eta taldekoak zentroko egoiliar eta erabiltzaile guztiei.
- 5.- Zentroko egoiliarrak eta erabiltzaileak zentroko bizitzan eta beren ingurunean integra daitezten eta parte har dezaten sustatzea.
- 6.- Lan-taldeak eta animazio soziokulturaleko jarduerak koordinatzea.
- 7.- Batzorde teknikoan parte hartzea.
- 8.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 9.- Zentroko egoiliarrei eta/edo erabiltzaileei eragiten dieten arazo sozialak konpontzeko behar diren gestioak egitea, batez ere entitate eta instituzio lokalekin.
- 10.- Ekipo multiprofesionalarekin edo departamentu medikoarekin parte hartzea egoiliarrek behar dituzten orientazioak edo atenzioa lantzen.
- 11.- Gelak eta jangelako mahaiak esleitzen eta aldatzen parte hartzea arta medikoko departamentuarekin, erizaintzakoarekin eta zuzendaritzarekin.
- 12.- Gaixo dauden egoiliarrak bisitatzea.
- 13.- Deskribaturikoez gain, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira mailaz goragokoak bere kategoria profesionalaren barruan agintzen dizkionak ere.

10.5.- FISIOTERAPEUTA:

- 1.- Agindutako errehabilitazio tratamenduak eta teknikak egin.
- 2.- Eskatzen zaionean zentroko talde multiprofesionalean parte hartu probak edo balorazioak egiteko, bere espezialitate profesionalarekin zerikusia dutenak.
- 3.- Egindako tratamenduko aplikazioaren jarraipena eta ebaluazioa egin.

- 4.- Bere espezialitateko tratamendua dagoenean tratamendu hori ezagutu, ebaluatu eta informatu eta, dagokionean, aldatu, besteen baliabideak erabilia.
- 5.- Bere espezialitateko baliabideak ezagutu lurralde-eremuan.
- 6.- Batzorde teknikoan parte hartzea.
- 7.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 8.- Trebakuntza eta informazioa programak egiten direnean eragindakoen familientzat eta erakundeentzat, bere eskumeneko gaietan parte hartu programa horiek egitean.
- 9.- Behar duten profesionalei aholkuak eman mobilizazioen jarraibideei buruz eta fisioterapiako tekniketara zeresana duten tratamenduei buruz.
- 10.- Zentroetan tratamenduak gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko egiten diren saioetara joan.
- 11.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 12.- Administrazio egoerak eginkizunetan lagunduko du, hala nola kontroleko egoera-orriak, hainbat parte, urteko memoriak, erregistro-liburuak, e.a. egiten.
- 13.- Bere funtzioen garapenean ikusitako gorabeherak edo anomaliak jakinaraztea bere nagusi hurrenari.
- 14.- Deskribaturikoez gain, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira mailaz goragokoak bere kategoria profesionalaren barruan agintzen dizkionak ere.

10.6.- JARDUEREN MONITOREA:

Jarduera Soziokulturaletako Teknikariak bete beharreko eginkizun nagusiak ondoko hauek izango dira:

- 1.- Jarduera soziokulturaletako teknikariek (JSKT) beren lana hezkuntzaren arloan egingo dute, jarduera kulturaletan, sozialetan, hezitzaileetan eta aisiakoetan parte hartuz.
- 2.- Parte-hartze kultureko prozesuak ezagutzeko, proposatzeko eta operatibo bihurtzeko kudeaketaren eta heziketaren aldetik.
- 3.- Esparru kultural eta edukatiboaren eta prozesu sozial eta ekonomikoen arteko erlazioak ezartzea.
- 4.- Beharrezko diren baliabide guztiak lortzeko eta prozesu kulturalak abian jartzeko informazio-iturriak eta prozedurak eskura izatea.

- 5.- Interbentzio kultureko estrategiak diseinatzerakoan eta inplementatzerakoan hainbat kualifikaziotako profesionalekin koordinatzea.
- 6.- Hainbat proiektu eta programa gauzatzea eta aurrekontuak egitea, bai halaber dagozkien txostenak eta ebaluazioak egitea.
- 7.- Programa eta proiektu espezifikoak egitea.
- 8.- Erabiltzaileen garapen integrala sustatzea jarduera ludiko-hezitzailearen bidez.
- 9.- Animazio-teknikak garatzea eta burutzea, banakakoak nahiz taldekakoak, erabiltzaileak beren astialdiaren okupazioan inplikaturiko dituztenak, eta horrela taldean integratu eta gara daitezkeen bultzatzea.
- 10.- Egoiliarren beren parte-hartzeak duen garrantziaz motibatzea, inguruarekin integratzea eta harekin erlazio positiboa izatea lortzeko.
- 11.- Batzorde teknikoan parte hartzea.
- 12.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 13.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik erarortzen diren erantzukizunak.
- 14.- Administrazioeko eginkizunetan lagunduko du, hala nola kontroleko egoera-orriak, hainbat parte, urteko memoriak, erregistro-liburuak, etab. egiten.
- 15.- Bere funtzioen garapenean ikusitako gorabeherak edo anomaliak jakinaraztea bere nagusi hurrenari.
- 16.- Deskribaturikoez gain, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira mailaz goragokoak bere kategoria profesionalaren barruan agintzen dizkionak ere.

10.7.- GAINBEGIRATZAILEA.

Zentroko zuzendariaren mendean zainketa pertsonalen eta banakako arreta pertsonalizatuaren zerbitzuak, ikuzketako, lentzeriako eta garbiketako zerbitzuak eta atezaintzako eta harrerako zerbitzuak antolatzea, banatzea eta koordinatzea bere eginkizun dituen pertsonala da.

- 1.- Bere kargura dituen langileen jarduera gainbegiratuko du, berari esleituak dituen pertsonen jarduerak eta txandak banatuko ditu eta, halaber, bere kargu dituen materialak, tresnak, erremintak eta makinak behar bezala eta ekonomiaz erabiltzen direla zainduko du. Era berean, zenbatu eta inbentariatu egingo ditu.
- 2.- Bere kargura dituen enplegatuek beren lan profesionala betetzen duela zainduko du, bai halaber haien higiena eta uniformitatea.
- 3.- Bere funtzioen garapenean ikusitako gorabeherak edo anomaliak bere nagusi hurrenari jakinaraziko dizkio.

- 4.- Guztiz isilpean gordeko ditu egoiliarrek nozitzen dituzten prozesu patologikoak eta haien intimitateari buruzko kontuak.
- 5.- Baldin eta, ezinbesteko edo ustekabeko premiengatik, zentroak normaltasunez jarduteko beharrezkoa bada, lagundu egingo du bere agindupean dituen enplegatuen jardueretan (klinikako laguntzaileak, garbitzaile ikuzleak eta atezain harreragileak).
- 6.- Batzorde teknikoan parte hartuko du.
- 7.- Zentroko zuzendaritzak antolatzen dituen bileretara joateko prest egongo da, ezartzen diren programazioarekin eta maiztasunarekin.
- 8.- Eginkizun administratiboetan lagunduko du, hala nola kontroleko egoera-orriak, hainbat parte, urteko memoriak, erregistro-liburuak, etab. egiten.
- 9.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 10.- Deskribaturikoez gain, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira mailaz goragokoak bere kategoria profesionalaren barruan agintzen dizkionak ere.

10.8- GEROKULTOREA / KLINIKA LAGUNTZAILEA:

Zentroko zuzendariaren edo hark zehaztu duen pertsonaren mendean dagoen pertsonal honen eginkizuna egoitzako erabiltzaileari urgaztea da, bere ezgaitasuna dela-eta bere kabuz egin ezin dituen eguneroko bizitzako gauzak egiten, eta haren atentzio pertsonalera eta haren inguruarenera bideraturiko lanak egitea. Besteak beste, hauek adierazten dira:

- 1.- Erabiltzailearen higiepe pertsonala.
- 2.- Egoitzako plan funtzionalaren arabera, haren eginbeharra izango da egoiliarraren tresneria garbitzea eta mantentzea, oheak egitea, arropa jasotzea, ikuztegiara eramatea eta logetako mantentze-lanetan laguntzea.
- 3.- Bakarrik jan ezin duten erabiltzaileei jaten ematea. Alde horretatik, erabiltzaileentzako janaria jasotzeaz eta banatzeaz ere arduratuko da.
- 4.- Jarrera-aldaketak egitea, bai halaber, bere prestakuntza teknikoarekin bat datozerarik, egiteko eskatzen zaizkion bestelako zerbitzu lagungarriak.
- 5.- Erabiltzaileen osasunean gertatzen diren gorabeheren berri jakinaraztea.
- 6.- Erabiltzaileari laguntzea irteeretan, ibilaldietan, gestioetan, txangoetan, jokoetan eta astialdian oro har.
- 7.- Profesionalen ekipoarekin batera lanean aritzea, haien zerbitzu espezializatuen osagarri izango diren oinarritzko lanak eginez, egoiliarrak autonomia pertsonala izan dezan eta gizarte-bizitzan txerta dadin ahalbidetzeko.

- 8.- Egoiliarrekin egiten diren jarduera edo harreman guztietan, dagozkien profesionalengandik jasotzen duten lan asistentziala, hezitzailea eta prestakuntzazkoaosatzen saiatuko da.
- 9.- Zuzenean zeinen mende dauden profesionalekin koordinaturik eta haien erantzukizunpean aritzea.
- 10.- Guztiz isilpean gordeko ditu egoiliarrek nozitzen dituzten prozesu patologikoak eta haien intimitateari buruzko kontuak.
- 11.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 12.- Oro har, lehenago zehaztu ez badira ere, eskatzen zaizkion lan guztiak egitea, betiere bere lanbidearen eta prestakuntza teknikoaren jardueran sartuak badaude eta lehenago adierazitakoarekin zerikusia badute.

10.9.- ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA:

- 1.- Ekimen eta erantzukizun mugatuak eta zentroko zuzendaritzako organoei menderatuak dituen langile horren eginkizunak dira makinaz idaztea, artxibatzea eta teknika administratiboetako beste jarduera batzuk.
- 2.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 3.- Eta, oro har, lehenago zehaztu ez badira ere, eskatzen zaizkion lan guztiak egitea, betiere bere lanbidearen eta prestakuntza teknikoaren jardueran sartuak badaude eta lehenago adierazitakoarekin zerikusia badute.

10.10.- ATEZAINA:

- 1.- Langile horren eginkizunak dira korrespondentzia jasotzea eta bidaltzea, etorritakoak bideratzea, telefonoen zentralaz eta bideo-atezainaz arduratzea, sarbideko puntuak zaintzea eta atezaintzako lanak egitea.
- 2.- Ohiz kanpo, langileekin elkarlanean aritzen da, pisu handiegiagatik langile horiek bakarrik egin ezin dituzten lanetan.
- 3.- Egoiliarren irteera eta sarreraren parteak betetzen ditu, baimenengatik edo oporregatik gertatzen badira.
- 4.- Egoiliarren irteteko edo beranduago iristeko eskariak artxibatuko ditu.
- 5.- Behar duten egoiliarrei geletara eta geletatik ekipajea eramaten laguntzea, zentroran sartzen diren pertsonak dakartzaten paketeak nahitaez eta modu diskretuan kontrolatuz. Era berean, nahitaez eta modu diskretuan kontrolatuko ditu pertsonalaren sarrera-irteerak.

- 6.- Egoiliarrak eta bisitariak instituzioko egoitzetara sartzeko zuzendaritzak ezarritako erregimena mantentzen du.
- 7.- Matxurako parteen kargu egingo da eta mantentzioko zerbitzura helaraziko ditu.
- 8.- Bere kargura du egoiliarrak batetik bestera eramatea, bai instituzioaren barruan, bai anbulantziako zerbitzuetan, autobusekoetan, etab.
- 9.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 10.- Oro har, lehenago zehaztu ez badira ere, eskatzen zaizkion eginkizun guztiak, betiere bere lanbidearen eta prestakuntza teknikoaren jardueran sartuak badaude eta lehenago adierazitakoarekin zerikusia badute.

10.11.- GARBITZAILE LISATZAILEA:

Zuzendariaren edo zeinengan delegatzen duen pertsonaren zuzeneko aginduetara egingo du lan.

Honako eginkizun hauek egin beharko ditu:

- 1.- Ikuzketari eta arropa zuriari berez dagozkien lanak egitea, makinak erabiltzea eta zaintzea, egoiliarren eta zentroko arropa zaintzea, eta materialak ahalik eta egokien erabiltzea.
2. Egunero egitea zentroko logela, lokal, egoitza eta instalazioen garbiketako berezko lanak (arropa-aldaketak, bainugelak, leiho eta balkoiak, jantokiko mahai-zapiak, altzariak, etab.), egoiliarrei ahalik eta enbarazu gutxien egiten saiatuz.
- 3.- Astean behin bederen, metalak, urretadurak, etab. garbitzea.
- 4.- Hamabostean behin bederen, beirak barrualdetik eta kanpoaldetik garbitzea eta zoruei distira ematea.
- 5.- Hilean behin bederen, altzariak, ekipamenduak, paretak, ateak, azulejoak, etab. sakonetik garbitzea.
- 6.- Gortinak, gortinoiak, burusiak eta edredoiak hotzean garbitzea, egoiliarren ezaugarrietan oinarrituz. Aurrekoa alde batera utzi gabe, lan hori urtean bitan behintzat egin beharko da.
- 7.- Bere nagusi hurrenari adieraztea bere lana egitean ikusitako anomaliak edo gorabeherak (matxurak, narriadurak, ageriko desordena, egoera txarreko janariak, etab.).
- 8.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 9.- Oro har, lehenago zehaztu ez badira ere, eskatzen zaizkion eginkizun guztiak, betiere bere lanbidearen eta prestakuntza teknikoaren jardueran sartuak badaude eta lehenago adierazitakoarekin zerikusia badute.

10.12.- SUKALDEBURUA:

- 1.- Sekzio horretako eta bertako pertsonal guztiaren arduraduna da; enkargatzen zaizkion jaki guztien maneatzeari zuzenduko du eta zainduko; zerbitzatzen dituzten jakiek estatuko eta atzerriko sukaldaritzako errezeta-liburuak beharretarako baldintzak betetzen dituztela zainduko du; era berean, eta zerbitzuaren garrantziak hala eskatzen duenean, pertsonalki maneatzeko dituen berak komenigarritzat jotzen dituen jaki onetan.
- 2.- Egunero prestatuko du menua, merkatuan dauden elikagaien arabera, eta Zuzendaritzari helaraziko dio, hark onatzen emateko. Elikagaiak ondo administratzen direla begiratuko du, haietatik guztietatik behar bezalako etekina ateratzeko asmoz. Egunero hurrengo egunerako geratutako izakinen inbentarioa aurkeztuko du, eta, zuzendaritzak hala eskatuz gero, egunean zehar lortutako batezbestekoen berri emango du. Ahalik eta erraztasun handienak emango ditu, prestakuntza profesional ezin hobea lortzeko.
- 3.- Bere kargu izango ditu partida guztiak kontsumitzeko elikagaiak, eta salgaien pisua egiaztatuko du iristen direnean. Kontsumitu diren artikuluak berriro jarriko ditu, beharrezkotzat jotzen dituenak erosiz, eta bezeroek eskaturiko elikagaiez hornituko ditu partidak, errazioka, betiere hala egitea posible bada. Arraina eta okela kontu handienarekin atalduko ditu, etekinik handiena lortzen saiatuz.
- 4.- Egunero komunikatzen zaizkion zerbitzu arruntak, bereziak eta apartekoak gainbegiratuko ditu.
- 5.- Bere arduradun hurrenari jakinaraziko dizkio bere eginkizuna egitean ikusitako anomaliak edo gorabeherak (matxurak, narriadurak, etab.).
- 6.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 7.- Zehaztu ez arren bere laneko tokiarekin eta kualifikazio profesionalarekin bat datozen funtzio guztiak egingo ditu.

10.12.- SUKALDARIA:

- 1.- Bere esku utzi dioten partidako jakiak pertsonalki osatzeaz eta maneatzeari arduratzen dena da.
- 2.- Sukaldeko langileen artean antolatzea karroak nola muntatu prestatutako menuekin.
- 3.- Ostalaritzako zerbitzuko berezko makinak eta tresnak garbitasuneko eta funtzionamenduko egoeraz guztiz onean mantentzen direla gainbegiratzea, hala nola: erretiluak, labeak, frijigailuak, ke-xurgagailua, iragazkiak, moztekoak, lapikoak, etab.
- 4.- Bere kargura duen pertsonalarekin batera, ostalaritzako zerbitzuko egoitzak eta instalazioak (baldintza-agiri hauetako III. Eranskineko planoan seinatuak) garbitzen

direla segurtatuko du. Egin beharrekoak hauek izango dira:

- Sukaldea, biltegia, ganbera frigorifikoak eta jantokia garbitzea, bai halaber baxera eta sukaldeko zein jantokiko tresneria.
 - Astean behin bederen metalak, urrezdurak, etab. garbitzea.
 - Hamabostean behin bederen, beirak barrualdetik eta kanpoaldetik garbitzea eta zoruei distira ematea.
 - Hilean behin bederen, altzariak, ekipamenduak, paretak, ateak, azulejoak, etab. sakonetik garbitzea.
- 5.- Bere arduradun hurrenari jakinaraziko dizkio bere eginkizuna egitean ikusitako anomaliak edo gorabeherak (matxurak, narriadurak, etab.).
 - 6.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
 - 7.- Zehaztu ez arren bere laneko tokiarekin eta kualifikazio profesionalarekin bat datozen funtzio guztiak egingo ditu.

10.13.- SUKALDEKO LAGUNTZAILEA:

- 1.- Beste sukaldarien edota sukalde-buruaren beraren aginduetara lan egiten duena da.
- 2.- Sukaldeko ontziak, plakak eta sekzio horretako gainerako tresnak urez garbitzeaz arduratuko da. Horrez gain, sukaldearen eta jantokiaren garbiketa orokorra egiten lagunduko du, eta ondo ordenatuta edukiko du bere ardurapean jarri dioten tresneria.
- 3.- Barazkiak eta arrainak urez garbitzeaz eta tuberkuluak eta egoskariak gordinean tratatzeaz arduratuko da. Ahalegin berezia egingo du bere prestakuntza profesionala erabat osatzen, esleitzen zaizkion zerbitzu guztiak eginez.
- 4.- Bere arduradun hurrenari jakinaraziko dizkio bere eginkizuna egitean ikusitako anomaliak edo gorabeherak (matxurak, narriadurak, etab.).
- 5.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 6.- Zehaztu ez arren bere laneko tokiarekin eta kualifikazio profesionalarekin bat datozen funtzio guztiak egingo ditu.

10.14.- ZERBITZARIA:

- 1.- Egoiliarra zerbitzatzeaz arduratuko da, bai halaber hura atenditzeaz. Bere ardurapean jartzen dioten txanda beti ordenan egon dadila zainduko du, eta gainerakoak ere hala egon daitezen kolaboratu beharko du, hori beharrezkoa denean eta bere lanak uzten dionean.
- 2.- Bere arduradun hurrenari jakinaraziko dizkio bere eginkizuna egitean ikusitako anomaliak edo gorabeherak (matxurak, narriadurak, etab.).
- 3.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-

sistematik eratortzen diren erantzukizunak.

- 4.- Zehaztu ez arren bere laneko tokiarekin eta kualifikazio profesionalarekin bat datozen funtzio guztiak egingo ditu.

10.15.- MANTENTZIOKO OFIZIALA:

- 1.- Langile horrek egiten ditu, zuzenean edo laguntzaileek lagundurik, zentroa, hango instalazioak eta kanpoaldeak ustiatzeko eta mantentzeko operazioak; berak muntatzen, doitzen eta puntuan jartzen ditu neurtzeko instalazio mota guztiak, tenperatura erregulatzeko eta modu sinplean edo automatikoan kontrolatzekoak, emariak aurreikustekoak, bero-ahalmenerakoak, uraren eta antzekoen analisi-mailetarakoak, etab.
- 2.- Aldizkako egiaztapenak egiten ditu makinetan edo instalazioetan, haien erregelamenduetan eta jarraibide teknikoetan seinalaturikoaren arabera, eta haietan behin betiko balioak baimendutako mugen barnean mantentzen ditu.
- 3.- Makina-gelak, instalazioak, koadro elektrikoak, transformadoreak, tailerra, etab. garbitzen ditu.
- 4.- Zentroko jarduerak normal garatzeko behar diren tronadurak, oholtzak, eszenatokiak, eserlekuak muntatzen ditu eta bozgorailuak, musika-ekipoak, proiektzioa, etab. martxan jartzen ditu.
- 5.- Operazio txikiak egiten ditu aipatutako instalazioetako dispositiboetan eta erremintatzaletako esku-aparatuetan.
- 6.- Egoiliarren nahiz edonork erabiltzekoak eta zentroaren jabetzakoak diren laguntza teknikoak (aulki gurgildunak, ibilgailuak, bastoiak, etab.) higiena eta mantentzea egiten du.
- 7.- Zerbitzua behar bezala joan dadin konpondutako tresna bakoitzaren laneko komunikatuak eta errebisatzeko edo egiaztatzeko fitxak betetzen ditu.
- 8.- Bere gain hartuko ditu Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ezarritako kalitate-sistematik eratortzen diren erantzukizunak.
- 9.- Oro har, lehenago zehaztu ez badira ere, eskatzen zaizkion eginkizun guztiak, betiere bere lanbidearen eta prestakuntza teknikoaren jardueran sartuak badaude eta lehenago adierazitakoarekin zerikusia badute.

11.- BALIAKIZUN MATERIALAK

- 11.1.- Enpresa adjudikatarioari ematen zaio Preskripzio Teknikoen Agiri honetako III. eta IV. Eranskinetan enumeratutako egoitza, altzari, ekipamendu eta instalazioen ardura.

Lizitatuak, beren proposamena aurkeztu aurretik, bisitatuak eta errebisatuak eduki beharko dituzte honako lizitazio honen xedeko edifizio eta instalazio guztiak, eta ezingo dira baliatu honako dokumentu honetan eta honen eranskinetan ematen diren datuen aldean izan daitezkeen diferentzietan, kontratuko periodoan prezioa aldatzen saiatzeko. Obligazio hori ez betetzearen ondorioak adjudikatarioak hartuko ditu bere gain.

- 11.2.- Enpresa adjudikatarioak egungo egoeran onartzen ditu instalazio horiek, eta erabat ezagutzen ditu ondoko hauek:
 - Edifizioen izaera

- Kudeatzeko bere ardurapean jartzen zaizkion ondasun mobiliario, ekipamendu eta instalazio guztiak
- Sarbideek betetzen dituzten kondizio partikularrak, edifizioen segurtasunari eta espezifikotasunari lotuak.

11.3.- Enpresa adjudikatarioa **obligatua egongo da**, haren esku dauden baliakizun materialei dagokienez, ondoko konpromiso hauek betetzera:

11.3.1.- **Mantentzioko konpromisoa:** Honako prestazio hauek bermatu beharko ditu:

- a) Mantentzioko zerbitzua: Erabat bere ardurapean mantenduko eta konponduko ditu baldintza-agiri hauetako III. Eranskineko planoetan seinalaturiko egoitzak eta IV. Eranskinean definituriko makina, altzari, ekipamendu, tresna eta elementu lagungarri guztiak.

Matxura larrien edo emergentzien kasuan, berehala hartuko ditu horiek konpontzeko behar diren neurriak.

Baldintza-agiri hauen II. Eranskinean zehazten da enpresa adjudikatarioak bete beharreko mantentzioko zerbitzuak nola eman, bai halaber bermatu beharreko baldintza teknikoak eta Preskripzio Teknikoen Agiri honen xede diren zerbitzuen kontratuan sarturiko zentroko instalazioen lista xehatua, Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxeko instalazioen mantentzio integralerako zerbitzuei dagokienez.

- b) Ondasunak eta ekipamenduak mantentzeko eta funtzionatzeko behar diren kontsumigaien hornikuntza:

Mantentzioko prestazioak garatzeko, adjudikatarioa arduratuko da zerbitzua emateko behar diren material guztiez, nola baitira honako baldintza-agiri honen IV. Eranskineko matrikulak osatzen dituzten aparatuak, lanabesak, ostilamendua, baxera, etab., zeinen fitxak espediente horri erantsiak baitoaz.

Baldin matrikula horietan definituriko zuzkidura nahikoa ez bada, adjudikatarioa egingo da erosi behar dituen elementu berrien kargu.

Adjudikatarioak, Udalaren oniritziarekin, hainbat kontsumigairen hornidura segurtatu behar du, bai eta pieza akastunak ordeztu ere, Preskripzio Teknikoen Agiri honen IV. Eranskinean definituriko ondasunen, ekipamenduen eta instalazioen multzoaren gainean:

Besteak beste, honako hauen hornidura segurtatu beharko du:

- o Olioak, koipeak, trpuak...
- o Dekapatzeko produktuak, desinkrustatzekoak, deshidratatzekoak...
- o Tefloia, zinta itsaskorra...
- o Pilotuak, fusibleak, era guztietako lanparak, aplikeak, etab.
- o Uhalak, filtroak...
- o Iturgintzako ekipamenduak, txorrotak, ixteko giltzak.
- o Pintura
- o Matxuretako ordeztu piezak oro har, haiek berehala konponduko direla garantizatuzeko moduan.
- o Lorezaintzako ekipamenduak.

- Ate eta leihoetako sarrailak.
- Elikadurako produktu minerala...
- Etab.

Era berean, bermatu egin beharko du ekipamenduek funtzionatzeko eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren kontsumigaien, hornigaien, uniformeen (nahitaez jantzi beharrekoak) eta abarren hornikuntza. Horretan sartzen dira fotokopiagailurako kontsumigaien hornikuntza, ekipamendu informatikoak, bulegoko materiala eta zerbitzua normal garatzeko behar diren gainerako hornigaiak.

11.3.2.- Ondasun inbentariatuen gaineko konpromisoa: Haren erantzukizuna izango da baldintza-agiri honen IV. eranskinean ageri diren ondasunen egoera eta lokalizazioa, bai eta zerbitzuan integratuz joango diren guztiena ere.

Ondasunen lokalizazioa aldatzen bada edota haiek galtzen edo hondatzen badira, horren berri eman beharko dio Lasarte-Oriako Udaleko Kontu-hartzaitzako Zerbitzuari, Udalaren Inbentarioan horrela jasoa agertzeko. Aldi berean, gertatzen diren galtze guztien kargu egingo da.

Ondasunen balio ekonomikoa determinatzeko, udaleko inbentario onetsiak une bakoitzean horientzat determinatzen duen balio erreal aplikatuko da. Kontrata deuseztatzen den unean, balio hori gailenduko da falta diren ondasunak eta detektaturiko narriok peritatzeko orduan.

Kontrata deuseztatzea gertatzen bada, adjudikatarioak presente egon beharko du inbentarioa egitean eta berriro jarri beharreko altzariak ebaluatzean, zeren, ekitaldi horretan presente ez badago, ulertuko baita onartzen duela izendatzen diren funtzionario munizipalek edo profesionalek egiten duten peritazioa.

11.3.3.- Horniduren konpromisoa: enpresa adjudikatarioak bere gain hartuko du ondoko hornidura hauen kostua:

- 11.3.3.1.- Edifizio guztiko uraren, argindarraren, gasaren, telefonoaren eta hari musikalaren hornidurak, batere salbuespenik gabe.
- 11.3.3.2.- Kontsumigaien hornidurak, edificzioaren mantentzio integralaren berezko esparruan.
- 11.3.3.3.- Baldintza-agiri honen IV. Eranskinean ageri diren igogailuak, su-itxalgailuak, galdarak, suterako harguneak, fotokopiagailuak, ekipamendu informatikoak, etab. mantentzean, bai halaber zerbitzura integratuz joango diren beste makina eta ekipamenduek behar izan lezaketen mantentzioaren kostuak.
- 11.3.3.4.- Haren kontura izango dira arauzko inspektzio teknikoaren ondoriozko tasak eta prezioak, bai eta ohiz kanpoko konponketetan eta mantentzioan hirugarrenek esku hartzearenak ere.
- 11.3.3.5.- Zentroan ezarritako Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Zerbitzua eta

Arratoigabetzeko, Fumigatzeko eta Desinfektatzeko Zerbitzua mantentzea.

- 11.3.3.6.- Haren kontura izango dira Zentroan ezarriko Kalitate-Sistema Normalizatzeko eta Zertifikatzeko prozesuen ondoriozko prezioak eta tasak.
- 11.3.3.7.- Bere gain hartuko du Atsobakar Zahar-Etxeko kaperako apainduren eta horniduren gastuak (kandelak, forma kontsaktuak, etab.).
- 11.3.3.8.- Egunero, prentsako hiru ale hornitu beharko ditu, Zentroko liburutegira destinatuak.
- 11.3.3.9.- Aldi berean eta erabat bere erantzukizunpean, gutxienez hiru telefono publiko jarri beharko ditu egoiliarren eskura.

Ondorioz, adjudikatarioak bere izenean jarri beharko ditu enpresa hornitzaile guztiekin ezarriak dauden kontratuak, bai eta aurrerantzean ezartzen diratekeenak ere.

11.3.4.- Adjudikatarioaren esku jarritako **ondasun mobiliarioen eta ekipamenduen listan** gertatzen diren **bariazioak** ondoko estipulazio hauei lotuak egongo dira:

- 1) Altzariak eta ekipamenduak erostea, Lasarte-Oriako Udalaren aburuz beharrezkoak badira, haren kargura joango da, eta hark emango du erosteko agindua, gero Udaleko Inbentarioan alta emateko, salbu eta ostilamenduko elementuak, horietarako 11.3.1.c paragrafoan xedaturikoa aplikatuko baita.
Udalak erositako ondasun berri guztiak adjudikatarioaren esku jarritako ondasunen eranskinean integratuko dira, eta bere gain hartu beharko ditu, baina horrek ez du inolako aldaketarik eragingo ezarritako prezioan.
Baldin inkorporazio horiek (eta horiek bakarrik) adjudikatarioari %20tik gorako kostu-gehitze **adizional** bat sorrazten badiote hasiera batean bere esku jarri zitzaizkion ondasunek errepresentatzen dioten kostuaren aldean, orduan bakarrik eskatu ahalko du prezioa aldatzeko, betiere benetako gehikuntzaren eta %20 horren arteko diferentziazatik ateratzen den portzentajearen bakarrik.
- 2) Baldin ekipamendu edo ondasun mobiliario bat konpontzearen kostua haren balio errealaren %85etik gorakoa bada, orduan, Udaleko Inbentariotik ateratzen diren datuen arabera, berri batekin ordezteko proposatuko dio adjudikatarioak Udalari, eta Udalak berehala abiarazi beharko du hura ordezteko prozedura administratibo arauzkoa. Baldin eta hura ordezteka ezin atzeratuzkoa bada eta konpontzea ezinbestekoa bada, Udalak bere gain hartuko du konponketa horren kostua.
- 3) Baldin eta ekipamendu batek **urte natural** berean matxura bat baino gehiago izan baditu eta horien kostu totala, Udaleko Inbentariotik ateratzen diren datuen arabera, ondasunaren balio errealaren %75 baino gehiagokoa bada, adjudikatarioak berria jartzea proposatuko dio Udalari, zeinek urtebeteko epea izango baitu hori egiteko.

11.3.5.- Enpresa adjudikataria, zerbitzua kudeatzeko, obligatua egongo da honako baliakizun material hauek hornitzera:

- Baldin eta adjudikataria nahikoa ez baderitza aipaturako eranskin horietan definituriko zuzkidurari, adjudikatariaaren ardura izango da Udalak erosteko baimena eman gabeko elementu berriak erostea.